



ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN AURKEZPEN GEOGRAFIKOA

Eugenio Ruiz Urrestarazu

Euskal Herriko Unibertsitateko Eskualdeen Anlisi Geografikoko katedraduna.

Araba Euskal Autonomia Erkidegoko hegoaldean dagoen Lurralde Historikoa da. Guztira 3.047 km² ditu azaleran eta 308.375 pertsona bizi dira bertan. Gasteiz da Arabako probintziako hiriburua, baita Euskal Herrikoa ere.

Inguru fisikoa

Probintziaren erliebea, egitura geologikoari dagokionez, ekialdetik mendebaldera doazen mendilerro eta ibar zerrenda paralelotan antolatuta dago. Iparraldean *Kantauri isurialdea eta Mediterraneokoa bereizten dituen katea* dago. Bertan, 900 eta 1.500 metro arteko mendiak daude, baita lurralde hau Bizkaia eta Gipuzkoarekin lotzen duten muinoak ere. Mendikate horren hegoaldean dago *Arabako Lautada*, azaleran 800 km² dituen kubeta handia. Lautadaren batez besteko altitudea 500-600 metrokoa da eta mendiz inguratuta dago. Hortxe dago lurraldeko hiriburua, Vitoria-Gasteiz. Hegoalderantz jarraituz *Arabako Erdialdeko Mendilerroak* ditugu, isurialde morfologia disimetrikokoak eta 900 eta 1.200 m bitarteko altitudeak dituztenak. Hegoaldeko isurialdeak *Trebiñuko Arroarekin* lotzen dira. Burgosko eremu hori lurralde historikoaren erdialdean dago eta *Arabako Lautadaren* antzeko ezaugarri topografikoak ditu. Probintziako hegoaldean, *Hegoaldeko Haran eta Mendilerroetan*, eremuko materialen gogortasunaren ondorioz, forma garai eta hondeatuak sortu dira. Hego-ekialdean, aldiz, *Hego-ekialdeko Haranak eta Mendilerroak edo Arabako Mendialdekoak* ditugu. Lur multzo garai honen erliebea gorabeheratsua da. *Toloño-Kantabria-Joarko Mendilerroa* da hegoaldean dagoen mendilerroa eta bertako tontorrik garaiena 1.414 metrokoa da. Probintziako iparralde eta erdialdeko eremu tolestua eta Ebroko sakonunea banatzen ditu. Sakonune horretan dago *Arabako Errioxa*. Eskualde horretan sare hidrografikoak moztu dituen glazis aldapa txiki eta ibai-terrazak aurki ditzakegu. Lurralde honetan klima anitz aurki ditzakegu latitude epeletan eta itsasotik hurbil dagoelako eta bere erliebeagatik. Iparraldeko eremuan klima atlantikoa dugu, prezipitazio ugari eta tenperatura epelekin. Hegoaldean, hau da, *Arabako Errioxan*, klima mediterranea nagusitzen da, hau da, uda garaian lehortek egoten dira eta tenperatura kontraste handiagoak izaten ditu. Erdialdeko eskualdeetan atlantikoa eta mediterraneoaren arteko trantsizioa nabaritzen da, bestela esanda, prezipitazioak ugariagoak dira iparraldean eta hegoalderantz joan ahala, pixkanaka gutxitzen doaz erliebe garrantzitsuak dauden eremuetan izan ezik. Eremu honen batez besteko altitudea altua denez, neguak hotzak izaten dira eta tenperaturetan nolabaiteko kontinentalizazioa nabaritzen da.

Ibai nagusiak Zadorra, Baia eta Ebro ibaiak dira eta azken honek probintziaren hegoaldeko muga markatzen du.

Landaredia, klima bezala, iparraldetik hegoaldera ordenatutako zerrenda paralelotan antolatuta dago. Eremu atlantikoa asko eraldatu da larreen eta birlandaketa koniferoen hedapenagatik. Eremu honen bereizgarri dira zuhaitz hostotsu eta haritz azidofilozko baso mistoak, eta mendi-hegal eta ibar hezeetako pagadiak. Erdialdeko eskualdeetan lore espezie anitz aurki ditzakegu, baita haritzak, erkametzak, ametzak eta arteak, eta gailurretako pagadiak eta mendebaldeko ibar eta mendi-hegaletako ler gorria ere. Arabako Errioxako landaredi naturala karraskal mediterraneo da, baina gaur egun nekazaritza jardueraren ondorioz asko murriztu da.

Biztanleria eta herriak

Probintziako biztanleria nabarmen hazi zen XX. mendean. 1900. urtean 100.000 biztanle izatetik gaur egun 310.000 biztanle izatera igaro da, eta ondorioz, lurraldeko dentsitatea 100 bizt./km²koa baino altuagoa da. Hazkuntza horren une gorena 1950a eta 1975a bitartean eman zen. Nagusiki Espainiako beste eremu batzuetako immigrazioari esker hazi zen biztanleria, lurraldeko industrializazioagatik lan merkatuak jasan zuen hazkuntzaren ondorioz. Harrezkero jasandako krisi ekonomikoen ostean biztanleriaren hazkuntza asko moteldu da eta Latinoamerika, Magreb eta Europako ekialdeko herrialdeetatik etorritako immigranteei esker mantendu da. Eremu honetako hazkuntza naturala ahula da jaiotze-tasa (‰ 11koa, gutxi gorabehera) eta heriotza-tasa (‰ 8koa, gutxi gorabehera) oso baxuak direlako. Aldi berean, adin piramidea nabarmen zahartu da. Biztanleen okupazioari dagokionez, azpimarratzekoa da gero eta gehiago espezializatzen ari dela zerbitzuen sektorean eta sektore horrek gaur egun biztanleria aktiboaren % 60 hartzen duela. Hala ere, industriak oso garrantzitsua izaten jarraitzen du, biztanleria aktiboaren % 30 inguru hartzen baitu. Eraikuntza da lanaren arloko hirugarren sektorerik garrantzitsuena, biztanleria aktiboaren % 8 inguru hartzen baitu, baina egoera ekonomikoaren arabera aldaketa garrantzitsuak jasaten ditu. Azkenik, nekazaritza arloko ogibideek beheranzko joera izan dute industrializazioaren garaitik eta gailentzekoa da gaur egun biztanle aktiboaren % 2k baino gutxiagok egiten duela lan arlo honetan.

Hona hemen Arabako herrien laburpen bat: hiri nagusi bat dago, Gasteiz hiriburua, hain zuzen. Ia 250.000 pertsona bizi dira bertan, beraz, probintziako biztanleriaren % 75 hartzen duela esan daiteke. Horrez gain, lurraldean herri txikiak eta herrixkak sakabanatuta daude. Ipar-mendebaldeko eremu atlantikoan daude biztanle gehien dituzten hurrengo bi herriak, Laudio eta Amurrio, alegia, eta biak daude Bilboko hirirantz polarizatuta. Eremu atlantiko horretan baserriak ere daude, baina sakabanatuta. Nekazaritza jarduera

gehiago duten eskualdeek herrixkatan antolatutako habitat sakabanatua dute. Arabako Errioxako eskualde mediterraneoan, aldiz, herri ertain eta txikiak aurki ditzakegu.

Ekoizpen eremuak

Araba XX. mendeko bigarren erdialdean sartu zen industria sistema modernoan eta industria hori bere bereizgarri bihurtu da. Espazioari dagokionez, industria sakabanatuta dagoela esan daiteke. Gunerik dinamikoena Gasteizko hiriaren inguruko industrialdeetan datza, probintziako gainerako eremuetan, aldiz, toki isolatu jakin batzuk dira azpimarragarriak, hala nola, Laudio, Amurrio, Legutio, Agurain, Langraiz Oka, Oion, etab. Bost adarretan dago espezializatuta: metalurgia eta metalezko salgaia, garraio materiala, kautxua eta plastikoa, makineria eta elikagaia.

Hirugarren sektorera igarotzeko prozesua beranduago iritsi da. Zentzu horretan, zerbitzuen gune nagusia ere Gasteizen dago. Industriaren berezko beharrei esker hazi da, baita demografia hazkuntzaren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoaren hiriburu administratibo bihurtu delako, errenta-mailak hazi egin direlako eta Gipuzkoa eta Burgosko eskualdeen mendekotasun funtzionalagatik ere. Azpi-sektorerik garatuenak honako hauek dira: enpresentzako zerbitzuak, merkataritza eta konponketa, garraioak eta komunikazioak, bankuak eta aseguruak eta herri administrazioa. Hezkuntza eta osasunaren inguruko zerbitzuen estaldura ona da. Arabaren ekoizpenaren espezializazioari esker, kanpo merkataritza bere egitura ekonomikoaren adar nagusi bihurtu da. Bestalde, azpimarratzekoa da baliabide natural eta kultural interesgarriak dituen arren, turismoak ez duela bere potentzial guztia garatu.

Eremu honen oinarri ekonomikoa industria eta hirugarren sektorea diren arren, lurraldearen zatirik handiena nekazaritza-eremua da. Nekazaritza jardueraren eragin ekonomikoa pixkanaka galtzen joan den arren, sektorea azkar modernizatzen joan da. Esan bezala, inguru naturala zerrenda latitudinaletan antolatuta dago eta nekazaritza paisaiak ere antzera aldatzen dira iparraldetik hegoaldera. Eremu atlantikoan abeltzaintza eta basogintza nagusitzen dira eta koniferozko birlandaketak eta larreak dira eremu horren elementurik adierazgarrienak. Erdialdeko eskualdeetako eremu laueta nagusiki zereala eta patata aprobetxamenduak edo industriaren inguruko landaketak tartekatzen dira. Mendien zati handi bat jabetza publikokoa da eta bertako espezieen basomasa garrantzitsuak mantentzen dituzte. Arabako Errioxan mahatsa soilik landatzen dela esan daiteke. Bertan, ardandegi ertainak edo familienak ditugu eta nazioartean ospetsua den jatorri-deitura duen ardoa egiten da.